

GABIRIA

Errezil sagar onena, Agerre baserrikoa

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, jende ugari bildu zen IX. Lehiaketara

MURUA

GABIRIA. DV. Eguraldiak lagundu ez arren, jendeak erantzun ona eman zion Gabiriako IX. Errezil Sagar Lehiaketan. Agerre baserriko Pili Etxeberria andreak irabazi zuen Errezil Sagar Lehiaketako lehenengo saria eta Landetako Nekane Agirrek sagar-goxo lehiaketako lehenengoa.

Goiz-goizetik eguraldi lanbrotsu eta narratsa izan arren, herri-rik nahiz kanpotik bertaratu ziren hainbat lagun berotasunean ospatu zuten atzo gabiriarrak Gabiriako Udalak eta Erbie Elkar- teak antolatu ohi duten IX. Errezil Sagar Lehiaketa eta Baserriko Produktuen Azoka.

Goizeko zortziak aldera ekin zioten antolatzaileek lehiaketara- ko nahiz azokarako behar ziren gauza guztiak prestatzeari eta ha- marretarako dena prest zegoen;

herriko plazaren inguruan, alde batetik eliz-atarian, azokarako prestatutako mahaiak Errezil sa- gar, barazki, baserriko ogi, gazta eta ederki asko aurkeztutako bes- telako hainbat janariz beterik, eta bestetik, eguraldiaren narratsa ikusirik, udaletxearen azpian lehiaketako Errezil sagarrez be- teriko saskiak eta sagar-goxoak.

Eguerdiko ordu bata aldera egin zen sari-banaketa eta honako hauek izan ziren aurtengo ira- bazleak: Errezil sagarren lehiake- tari dagokionez, epaimahaiko la- netan aritu ziren Ramón Asegino- laza, Jose Antonio Iparragirre eta Martín Irazustabarrenaren iritziz aurkeztutako sagarren kalitatea oso ona izan zen, baina hiru auke- ratu behar eta honako hauek izan ziren aukeratuak: lehenengo sa- ria Agerre baserriko Pili Etxebe- rria andreak eskuratu zuen, bigar- rren saria Urkiola baserriko Iñaki Arratibelek eta hirugarrena, Izan-Aundi baserriko Maria Isa- bel Zumalakarregik. Lortutako puntuazioari dagokionez, lehenen- goak 80,5 puntu lortu zituen, bigar- renak 79,5 eta hirugarrenak 79.

Sagar-goxo lehiaketan epai- mahaiako lanetan Ormaiztegi-ko Kuko jatetxeko Iker Markinez eta Korta jatetxeko Lontxo Ormaza- bal aritu ziren eta horien ustetan

HERRIZ HERRI



ONAK. Epaimahaikideek udaletxeko arkupean erakutsi ziren sagarren kalitatea goraipatu zuten. /APREA



Euriari aurre egin zioten ikusleek eta dantzarien. /APREA

honako hauek izan ziren onenetak- oak: lehenengo saria Landeta ba- serriko Nekane Agirrerentzat izan zen; bigarrena, Irubide baserriko Gabina Etcheberriarentzat eta hi-

rugarrena Eliz-azpiko Gloria Fer- nandezentzat.

Ospakizun honen barruan ur- tero Errezil sagararrarekin eta azo- karekin zerikusia duen gabiriarr

SAGAR LEHIAKETA

- **Aurrenekoa:** Pili Etxeberria, Agerre baserrikoa.
- **Bigarrena:** Iñaki Arratibel, Urkiola baserrikoa.
- **Hirugarrena:** Maria Isabel Zumalakarregi, Izan-Aundi baserrikoa.

GOXO LEHIAKETA

- **Aurrenekoa:** Nekane Agirre, Landeta baserrikoa.
- **Bigarrena:** Gabina Etcheberria, Irubide baserrikoa.
- **Hirugarrena:** Gloria Fernández, Elizazpikoa.

bati omenaldia eskaintzen dio Gabiriako herriak eta oraingo hone- tan Antoni Murgiondori egokitu zaio herriaren esker ona, eta Or- diziako Unanue gozotegiak eskai- ni ohi duen zilarrezko oroigarria jaso zuen. ■